



ARRABIOEN GERRA

KAREL CAPEK

Arrabioen Gerra (1936an argitaratua) gizateriaren satira dibertigarri eta garratza da, eta, gainera, ikaragarri originala. Aldez aurretik ez nekien ezer, ez egileaz ez liburuaz; ez nuen inoiz ez bataren ez bestearen aditzerik izan. Suposatzen dut txekiar literaturak ez duela "hobeto kokatuta" dauden beste herrialde batzuetako literaturek duten adinako proiektiorik. Izan ere, arteetan ere, negozioa... negozioa da. Bestalde, denbora ez da alferrik

igarotzen, eta 1890. urtean jaio eta 1938. urtean hil zen egile bati buruz ari gara. Hori gutxi balitz, duela hamarkada batzuetatik hona abiadura bizian doa dena. Azkenik, ni ez naiz "orojakilea", noski, eta badira ezagutzen ez ditudan egileak eta liburuak, ezinezkoa baita den-dena ezagutzea, zer egingo diogu, ba?

Eleberria berez oso ondo planteatuta dago, hau da, arrabioen jatorria, garapena eta hedapena, bilakaera... oso ondo azalduta daude. Alderdi horiek guztiak planteatzen dira logikaren eta zientziaren esparruan, eta horrek fikzioaren beraren balioa areagotzen du.

Gizateriaren "balioak" zalantzan jartzen dituen zientzia-fikziozko lehen lana ez da, noski. Gehiago egon dira-eta: Aldous Huxley-ren Bai mundu berria (1932), George Orwell-en 1984 (1949), Ray Bradbury-ren Fahrenheit 451 (1953)... Isaac Asimov-en obran ere agertzen da zentzu kritiko hori, bai eta gizartearen gaineko ikuspegi distopikoak ematen dituzten lan eta egile askotan ere. Nolanahi ere, Karel Capek dugu generoaren aitzindarietako bat, dudarik gabe.

Egia esan, zientzia fikzioa uste baino gehiagotan erabiltzen da gizartearen gaineko ikuspegi kritikoak emateko. Kritika soziala praktikatzeko modu aski dotore eta diskretua da, diskurtso eta formatu higituak alde batera utzita. Bestalde, zientzia-fikzio ona planteamendu zientifikoetan oinarrituta egon ohi da, zenbaitetan esparru teknologikoak eta beste zenbaitetan humanitateak edo giza zientziak (filosofia, antropologia...) lagun dituela.

Zientziak, teknologiak eta munduaren gaineko interpretazio intelektualak, oro har, ikuspegi berri bat ekartzen dute eurekin, eta, zentzu horretan, subertsiboak gertatzen dira, bai ezarritako botereentzat, bai iraganean ainguraturiko ikuspegi tradizionalentzat. Hortik dator, hain zuzen ere, zientzia-fikzioarekin loturik dauden produktuen indar handia, bereziki literaturarena eta zinemarena.

Eleberri honetan, isil-gordean eta jenialki, egilearen garaian garrantzi handia zuten gai askoren kritika ironiko eta dibertigarria egiten da; zoritxarrez, gai

horietako asko gure garaiotan ere puri-purian daude: herrialde ahulen arpilaketa, baliabide naturalen gehiegizko ustiaketa, esklabismoa, kapitalismo basatia, faxismoaren eta nazionalismo supremazisten gorakada, zientzialari batzuen gizatasunik eza (liburu hau idatzi eta handik urte gutxira muturreraino eramanda, nazien esperimendu mediko eta antropologikoetan), eta abar, eta abar.

Hitz gutxitan esanda, altxor bat, berriro ere "Literatura Unibertsala"ren eskutik iritsia, EIZIEren ekimenez.

Koro Navarroren itzulpenari dagokionez, iragarkian bezala, zera baino ezin dut esan: "J'adore".